



ABALTZISKETA

IRAGARKIA

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailak 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikulua agindutako jendaurreko informazio epea amaitu denez eta epe horretan ez denez inolako zuzenketa eske edo oharkizunik aurkeztu, finko eta behin betikoak bihurtu dira Udal Batzarrak 2008ko urriaren 30ean hartu zituen behin behineko erabakiak Udal izaerako zenbait tributuren ordainarazpena arautzen duten Ordenantzak aldatzeari, 2009ko urtarrilaren 1etik hasita.

1- 2009 urteko urtarrilaren 1etik aurrera, ondorengo Zergei buruzko Ordenantza fiskalen eranskina hauek aldatu dira:

1. Ondasun Higiezinaren zerga

Landalur zerga: Tipoa: %0,711

Hirilur zerga: Tipoa: %0,182

2. Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen zerga.

Eranskina:

<u>Ibilgailuaren potentzia eta mota</u>	<u>Euroak</u>
a) Turismoak:	
9 zaldi fiskaletik beherakoak	21,79
9tik 11,99 zaldi fiskalera bitartekoak	45,01
12tik 13,99 zaldi fiskalera bitartekoak	97,65
14tik 15,99 zaldi fiskalera bitartekoak	105,06
16tik 19,99 zaldi fiskalera bitartekoak	135,08
20 zaldi fiskaletik gorakoak	165,10



ABALTZISKETA

b) Autobusak:

21 plaza baino gutxiagoak	112,89
21etik 50 plazara bitartekoak	160,79
50 plaza baino gehiagoak	197,27

c) Kamioiak:

1000 kg. karga baliagarritik beherako kamioia	57,31
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	112,89
2.999tik 9.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	160,79
9.999tik gorako karga erabilgarria dutenak	200,99

d) Traktoreak:

16 zaldi fiskal baino gutxiagoak	23,91
16tik 25 zaldi fiskalera bitartekoak	36,43
25 zaldi fiskal baino gehiagoak	112,89

e) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdiatoiak:

1.000 baino gutxiago eta 750 kg. baino gehiago karga erabilgarria dutenak	23,91
1.000tik 2.999 kg.ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	36,43
2.999 kg.tik gorako karga erabilgarria dutenak	112,89

f) Bestelako ibilgailuak

Ziklomotoreak	5,99
125 cc.ra bitarteko motozikletak	5,99
125 cc.tik 250 cc.ra bitarteko motozikletak	10,25
250 cc.tik 500 cc.ra bitarteko motozikletak	20,52
500 cc.tik 1.000 cc.ra bitarteko motozikletak	43,89
1.000 cc.tik gorako motozikletak	82,11

2- 2009 urteko urtarrilaren 1etik aurrera Jardueren eta zerbitzu prestazioen gaineko tasen eranskin hauek aldatu dira:



ABALTZISKETA

1. Ura

(Ur kontsortzioak asanblean hartutako prezioak, sistema integralean).

2. Zaborra.

Etxeetakoa 16,01 euro urtean.

Ez etxeetakoa 107,87 euro urtean.

3. Hilerria.

Hilobiratzea, 10 urteko kontzesioa 412,79 euro.

Hezurtokia, 10 urteko kontzesioa 119,96 euro.

Gipuzkoako Udal Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 18.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, tipoak, kuotak, tarifak eta Ordenantzak finkatu eta aldatzea onesten duten akordio horien aurka, interesatuek errekurtsio kontentzioso-administratiboa tartekatu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean bi hilabeteko epean, akordio horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuz.

Dena dela, interesatu horiek aurkez dezakete, nahi bada eta kontentzioso-administratibo bidea baino lehen, Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomi-Administratiboaren aurrean erreklamazioa hilabeteko epean, aipatu akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu denetik aurrera kontatuz.

Abaltzisketan, 2008ko abenduaren 1ean.

Alkateak

Jesus M^a Gorostidi Irazusta